

IRATXOKO KULTUR BATZORDEA

Iratxoko Kultur Batzordeak bere ekintzak antolatzen ditu kolektibo barruan nahiz Irurtzungo herrian kultura sustatu eta aisialdirako eskaintza osatzeko.

Elkarte barruan ondorengo ekintzak azpimarratu nahiko genituzke, besteak beste: Bazkidearen Eguna, sagardotegi batean bazkalduz amaiera ematen zaien Euskal Herria ezagutzeko prestatzen diren irteera kultural-rekreatiboak, mus eta partxis txapelketak... Urtean zehar beste ekintza batzuk ere ez dira faltatzen, hala nola, gaurkotasunezko gaien inguruko hitzaldi eta gai sozial desberdinei buruzko erakusketak. Bazkide mailan, eta bi urtean behin, Europako tokiren bat ezagutzeko astebete inguruko bidaia antolatzen da bere historia, kultura, ohiturak eta, nola ez, gastronomía ezagutzeko.



Herri mailako ekintzak.

Ekintza hauek Iratxoko Kultur Batzordea Irurtzungo Udaleko Kultur Kontseiluaren kide izatearen ondorio dira. Lankidetzari esker antolatutako ekintzen artean ondorengoak nabarmenduko genituzke:

- San Martineko festak (Irurtzungo patroia, azaroaren 11). Egun honetan Iratxoko egoitzan jokatzen den mus txapelketa azkar bat antolatzen da eta San Martin egunaren aurreko edo ondorengo igandean artisautza feria bat antolatzen da. Feria horretan eskualdeko nahiz uskal Herri osoko artista eta artisauak hartzen dute parte.
- Festa nagusietan batzorde honek helduentzako herri jokoak antolatzen ditu ahaztuak zeuden jolasak berreskuratuz: igela, toka, zaku lasterketa, uztai eroatea, boloak...
- Olientzeroren antolaketa ere partehartze garrantzitsua du Iratxoko Kultur Batzordearen eta beste bazkide batzuen bidez.



Beste elkarte batzuekin lankidetzan antolatutako ekintzak.

Alor honetan bi hauek nabarmenduko ditugu:

- Iratxoko botxategian jokatzen den botxa txapelketa eta Iratxoko Orreagan duen partehartzea. Goazen ekintza hauen berri zehatzagoa ematera.

Botxak. Iratxo Elkarteak badu bere botxategia, hau da, botxetara aritzeko bazkideek duten bilgunea.

Hirunaka jokatzen da eta jokua ezpelezko pilota batzuk aurretik jaurtitako altzairuzko bolatxo bat ondora, "botxina"-ren ondora, hurbiltzea besterik ez da, aurkariak baino botxa gehiago gerturatzea, alegia. Hirukoteko jokalariek bakoitzak bi botxa jaurti behar ditu eta talde irabazlea lehenengo 15 puntu lortzen dituen da. Jokalekua lur-hareazkoa da eta gure botxategia estalia da eta argia ere badu gaez aritu ahal izateko. Iratxoko elkarte-arteko botxa txapelketa azkar bat antolatzen du urtero. Zuen elkartearen botxetan jokatzen baduzue edo parte hartzeko interesik baduzue, ez duzue deitu besterik.



Orreaga. Iratxo Orreaga fundazioko kide da eta Nafarroako kultura eta historia ezagutzera emateko.

Espero dugu lerro hauen bidez Iratxo Elkartearen jardunaren berri zehatzagoa izango duzuela, bereziki Kultur Batzorde honena.